

Gure goseak



**KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE**
LITERATUR ZALEA

ANTTON OLARIAGA

Zutabe hau idazten dudan unean, ikasturtea ez da hasia, oraino oporretan nago. Sartzeari pentsatzean, gogora heldu zaidan irudia da lehen lan eguneko agurra, eta saihestezineko galdera: “Orduan, bakantza goxoak pasatu dituzuia?”, eta egia erran beharko: bai, uda goxoa iragan dut, etxekoekin, mendian. Bizkitartean, gure inguruan zorigaitzak azkar jo du jendea: bat supituki hil, besteak bere buruaz beste egin, hari berriz minbizia agertu... giro orokor hits eta beldurgarrian. Gerla eta gosete mehatxuak hor dauzkagu, Europaren atarian, ohartzen hasiak gara barbarismoa ate joka zaigula. Ez dakit ahalke beharko nukkeen erratea gozatu ditudala harremanak haur eta bizilagunarekin, bakan ikusten ditudan familiakoekin eta herritarrekin, baratzea zaintzen, musika egiten eta irakurtzen, erratea saiatu naizela ene baitako ikara eta zalantzak hezten. Ez dakit luzaz atxikitzeko postura izanen dudan hori, lan garaiko zurrumbilo lehertzaileari ihes egiten ahaliko diodan, baina bederen, hara, bai, uda goxoa iragan dut.

Ene plazer handienetarik izan da ezagutzen ez nituen liburu batzuk leitzea, eta neurtzea zenbateraino oihartzun egiten duten ene baitan. Aurtengo *Hatsaren*

poesia bildumak eta Lizar Begoñaren *Le-pardo japoniarrak* azken olerki liburuak, deszentratzera gonbidatzen gaituzte. Marie Alinek joan den apirilean argitaratu *Les Bouffeurs anonymes* (Jale anonimokoak) distopia berezia, janariari lotu plazer eta arauak arakutzen ditu. Eleberririk horretan, Estatu autoritario batek hiritarren osasun babesean eta ongizatean bermatua du bere zilegitasuna, eta bereziki elikaduraren kontrolean oinarritua du bere diktadura. Protagonista kritikari gastronomikoa da, Estatuak asmatu arauak zabaltzen ibiltzen dena. Pixkanaka, giza baitako abere jiteaz gogoetatze-ra behartua da, natura eta gizartearen arteko harremanez hausnartzen du, eta funtsezko galderak egiten: zer jan, nola, eta sustu nola kudeatu jendearen gose fisiko eta moralak izadiak eta antolaketa politikoek eskaini diezaiokeen hazkurrarekin?

Ondotik irakurri dudana, antzerkia da, Karel Čapek txekiarrarena, 1937 urtekoa: *La Maladie blanche* (Eritasun zuria), aurtentzua frantsesera. Modu absurdo eta groteskoan, dramaturgoak asmatzen du Txinatik hedatu dela eritasun biziki kutsakorra, milioika heriotza eragiten dituen. European, ikerlariak

zoin gehiagoka ikusten dira sendagailu bila, gobernatzaileak egoeraz baliatzen gezurrak zabaltzeko eta hedabideak manipulatzeko... Batzuek ametssetako parada ikusten dute egoera horretan gerla pizteko, autoritarismoa inposatzeko, aterabide estakuruan. Baina hara agertzen dela Galén medikua: denek igurikatu artamena atzeman du! Haatik, Estatu buruzagiei erraten die artamena sekretua salatuko diela erabakitzen badute gerlarik gehiago ez egitea... Ah, COVID 19aren kontrako txerto enpresetako nagusiek hau irakurri eta bere egin balute!

Azkenik, Karel Čapek idazle horren beste liburua irakurri dut, hori iaz itzulia frantsesera: *L'Année du Jardinier* (“Baratzezainaren urtea”). Obra filosofiko-poetiko horretan, autoreak baratzezainaren eginbeharrak, esperantzak eta beldurrak aipatzen ditu, ondorioztatuz gizakiak umil egon behar duela naturaren aitzinean: natura ezin da kontrolatu, jabetza kontzeptuak ezin du preso ezarri. Baratzea eta mundua ez daitezke mugatu eta gureganatu. Irakaspen horren arabera beharko genituzke neurtu gure ekintzak, gure goseak eta aseak elkartzunez zainduz. ●